

SIDRA-SAGARDOA / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

Petritegi sagardotegiak 'Shacksbury Basque Cider' sagardoa aurkeztu du Bostonen.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 30/04/2015 • 17:16

Sin comentarios



Hadley Douglas Bostongo Urban Grape ardo denda famatuko nagusiak eta Ainara Otaño Petritegi sagardotegiko arduradunak ireki zuten 2014ko uzta Toro jatetxean, "Txotx and Cheers" oihu eginda.

Ekitaldi oso berezia egin berri du Massachussets-en, Bostongo Toro jatetxean, Petritegi sagardotegiak, Urban Grape ardo denda famatuak eta Shacksbury inportazio eta elaborazio enpresak. Shacksbury Basque Cider sagardoa aurkeztu zuten,

Petritegik Shacksbury enpresarentzat egiten duen euskal sagardoa. "Ameriketari jende asko dago, Euskal sagardo izaera gustuko duena, eta guk bi marken alde

egin dugu bertan Shacksbury enpresako lagunekin: batetik beren izena duen Euskal Sagardoa egin diegu eta horrez gain, gure betiko Petritegi sagardoa ere salduko dute" azpimarratu du Ainara Otaño.

Ekitaldiaren helburu nagusia euskal sagardoa eta Euskal sagardoaren bueltako kultura ezagutzera ematea izan da, eta Bostongo kontsumitzaile eta Shacksbury Basque Cider sagardoaren atzean dagoen ibilbide luzea erakustea, Petritegi sagardotegiaren ibilbidea. "Amerikarrek garrantzia handia ematen diote proiektu baten atzean dagoen filosofiarri, jendeari eta historiari eta Petritegik zer kontatu handia du bide horretan, hain berria den Estatu Batuetako sagardo mundua" dio Ainarak.

Ekitaldia David Dolginow eta Colin Davis hasi zuten, ekitaldia aurkeztu eta Shacksbury enpresaren filosofia, ilusioa eta helburuak azaldu. Ondorenean Hadley Douglas Urban Grape Bostongo ardanegi famatuko nagusiak hitz egin zuen Estatu Batuetako merkatuaren inguruan eta jarraian Ainara Otaño hartu zuen hitza eta euskeraz egin zuen aurkezpena eta ingelesez itzuli. Euskal

Herria eta Astigarraga non dauden azaldu zuen Otaño, Petritegik sagardo mundua izan duen ibilia 1526 urtetik gaurdaino eta Otaño Goikoetxea familiak 100 urte daramatzala sagardotegian lanean, bost generazio. Bukatzeko eskerrak eman zizkien guztiei. Otañori atentzioa deitu zion jendeari interesak "euskal sagardoi buruz jakin nahi dute, harritu egiten ditu 500 urtetik gorako historia izateak eta bost generazioen lanak. Hor dauka bere balioa. Euskal Sagardoak, interesa pizteko moduko historia eta ibilbide bat duela atzean".

Aurkezpenen ondoren, txotx eginaz dastatu zuten sagardoa Torora inguratuko lagunek eta jendeak gustora dastatu zuten, batzuentzat ezaguna baina beste askorentzat ezezaguna zen produktua.

Handitzen ari den sagardo merkatu bat

Ameriketako Estatu Batuetan geroz eta sagardo gehiago edaten da, eta hala diote azken urteetako datuek. Gehiena sagardo aparduna eta gozoa edaten dute amerikarrek, baina geroz eta gehiago dira bestelako sagardoak eskatzen dituztenak, kalitatezko sagardoak, gauza bereziak eta historia eta oinarri sendoko sagardoak.

Euskal sagardoak leku bat badu guzti horretan, historia bat duelako, zer kontatua duelako eta kalitatezko produktu natural bat. Baina guzti hori ikusteko ezinbestekoa da bertara joatea, jendeari hitz egitea eta aurrez aurre euskal sagardoa zer den azaltzea. Abiadura izugarrian mogitzen ari den merkatu horretan, bere lekua bilatzeko erronka izango du euskal sagardoak, eta buru belarri ari da lan horretan Petritegi sagardotegia beste hainbat sagardotegirekin batean.

'Song of the Basques' dokumentala

Bostongo ekitaldiko beste protagonistetako bat Emily Lobsenz zinegile estatubatuarra izan zen eta berak egindako "Song of the Basques" dokumentala. Lobsenz Euskal Herrian bizi izan zen bost urtez. Euskal kulturak txundituta utzi zuen eta horek animatu du Euskal Herriko ohiturak biltzen dituen dokumental eder hau grabatzera.

Behin Estatu Batuetara bueltan, proiektua martxan zegoela, Emily Petritegirekin harremanetan jarri zen eta 2015 hasieran sagardotegira joan zen, Petritegi proiektuaren parte egiteko. Aurkezpenarekin batean dokumentala ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

- Agenda-Agenda
- Azokak-Ferias
- Ekitaldiak-Eventos
- Errezetak-Recetas
- Espereziazko-Experiencias
- Fermentazio-Formación
- Gastronomia-Gastronomía
- Historia-Historia
- Kultura-Cultura
- Lehiaketak-Concursos
- Museos-Museoak
- Prensa-Prensa
- Sagarra-Manzana
- Sagastia-Manzanal
- Sidra-Sagardoa
- Sidrerías-Sagardotegiak
- Sin categoría
- Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagarrondoak udaran zaintzeko ikastaroa.



4. Ilarraren Jardunaldiak Astigarragan.



"Markesaren alaba eta Luixen istorioa" Sagardoetxean.

Tags: Boston, Petritegi, Shacksbury, Shacksbury Basque Cider, Song of the Basques, Urban Grape

Anterior post

Concurso de fotos "Ovejas en los pastos y manzanos en flor" en Facebook."Sagastiak loretan eta ardiak larretan" argazki lehiaketa Facebook-en.

Siguiente post

XXXIV Sagardo Eguna de Usurbil este domingo, 17 de mayo.Usurbilgo XXXIV. Sagardo Eguna igandean, maiatzak 17an.



Udajolas 2015
Sagardoetxean.



Usurbilgo XXXIV. Sagardo
Eguna igandean, maiatzak
17an.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Sagardoaren Lurraldea en "Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

Marisa en "Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

m. petrus en "Sagastiak loretan eta ardiak larretan" argazki lehiaketa Facebook-en.